



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 30a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-24/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskaini dezan. Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan. Kevin Lucero Domingues jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-24/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita Hauteskunde-arubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkarteen eta alderdi txikien egiazko beharizanen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-arubide proportzional bat ezarriko baita. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 11-24/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatuko duena 48 ordukoa izatea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehieneko itxaronaldia. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- 11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktimia izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak. Memoria eta Bizikidetz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetzea (11. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nazioarteko Olinpiar Batzordea premiatzen baita ez dezan onar Israel 2024ko Olinpiar Jokoetan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Zioen azalpena

Antzinaroko Olinpiar Jokoetan, kirol-lehiaketak bukatu arte gibelatzen ziren bertan parte hartzen ari ziren hiri-estatuaren arteko gatazkak. Olinpiar bakea edo menia zeritzon horri. Olinpiar Jokoen Aro Modernoan, kontuan hartuta kirolaren eta Olinpiar Jokoen inguruko errealitate politiko berria, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak erabaki zuen olinpiar meniaren tradizioa biziberritzea Jugoslavia izandakoan gertatutako gerren karietara, ahal zen neurrian babeste aldera atleten eta, oro har, kirolaren interesak, eta mundua suntsitzen ari

ziren gatazkei konponbide baketsu eta diplomatikoak bilatzen laguntze aldera.

Indarrean den Gutun Olinpiarrean besteak beste ezartzen da olinpismoaren xedea dela kirola gizakiaren garapen harmoniatsuen zerbitzuan jartzea beti, gizarte baketsu eta giza duintasunarekiko konprometitua ezartzearen mesedetan.

Ia 5 hilabete joan dira Israelgo armadak Gazan ekintza militarrek areagotu zituenetik, Gazaren sarraski etengabea bihurtzeraino areagotu ere. Nazioarteko buruzagi politikoek eta are Nazio Batuen idazkari nagusiak gertatua genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak direla diote, baina Israelgo estatuak ez die jaramonik egin Nazio Batuen Erakundeak eta haren Segurtasun Kontseiluak eginiko bake-deiei eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzeko deiei.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hauek aurkeztu ditugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Espainiako Olinpiar Batzordeari eska diezaion honako hauek helarazteko Nazioarteko Olinpiar Batzordeari:

1. 2024ko udako Olinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren aurka egiten ari den eraso militarrek dirauen bitartean.

2. 2024ko Paralinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren aurka egiten ari den eraso militarrek dirauen bitartean.

3. 2024ko Gazteriaren Olinpiar Jokoetan ez dezan onar Israelgo estatuaren kirolaririk eta ordezkari ofizialik, Israelgo estatua Gazako herritarren aurka egiten ari den eraso militarrek dirauen bitartean.

Iruñean, 2024ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskaini dezan

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita 0-3 zikloa modu integralean eskaini dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Eneka Maiz Ulaiar EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Historikoki, 3 urtetik beherakoentzako haur-eskolek izaera asistentziala izan dute, eta horregatik esaten zitzaizen "haurtzaindegi". Zerbitzu pribatutzat jotzen ziren, edo, bestela, gizarte-zerbitzuei lotuak, betiere eskubide sozialen departamentuaren itzalpean. Gabeziak izugarriak zirenez, 2000. urte inguruan udalak zerbitzu hori ematen hasi ziren, nahiz eta ez izan udal eskumena.

Baina Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan hezkuntza-izaera ematen zaio 0tik 3 urtera bitarteko haurren arretari. 14. artikuluan dio Haur Hezkuntzako etapa bi ziklotan antolatzen dela, eta lehenengoa hiru urtera artekoa dela. Gero, 3/2020 Lege Organikoak ere hezkuntza izaera hori berretsi egin zuen.

Nafarroan, 28/2007 Foru Dekretua onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa arautu zuena. Ziklo hori ematen ahal duten ikastetxeen ezaugarriak arautu zituen, ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezarri zituen, eta ikastetxe horiek sortu edo baimentzeko proze-

dura ezarri zuen. Dekretuaren 5. artikuluan zikloaren hezkuntza-izaera berresten da.

Bestalde, 79/2012 Foru Aginduaren bidez, Hezkuntza Departamentuaren eta toki-entitateen artean lankidetzak hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezarri ziren, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz. Eta 61/2022 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako etapako irakaskuntzen curriculumak ezarri zuen, Lehen Zikloa barne.

Argi dago ahalegina egin dela, baina ziklo hori hezkuntza-sistemaren barruan erabat txertatuta egoteko asko falta da oraindik. Nafarroako Foru Komunitatean, hiru urtetik beherako haurrak era eta baldintza desberdinetako zentroetan daude gaur egun: Nafarroako Gobernuaren haur-eskoletan, udalaren haur-eskoletan, haurtzaindegi pribatuetan, ikastetxe pribatuetako 2 urteko geletan, eta abar. Unibertsaltasunerako asko falta da oraindik, eskaintza oso dibertsifikatua dago, eta herri eta auzo askotan ez dago eskaintza osorik. Nafarroako haur-eskola gehienak toki-entitateen titulartasunekoak edo titulartasun pribatukoak dira. Horregatik, sistema integral eta homogeen bat ezartzeko bide-orri zehatza adostu beharra dago, eskaintza doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa izan dadin, gainerako hezkuntza-etapen modura.

Aurten, Hezkuntza Departamentuak iragarri du datorren ikasturtean 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa doakoa izango dela Nafarroako haur-eskoletako familia guztientzat, bai Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan, bai Gobernuarekin hitzarmenak dituzten udalen mendeko haur-eskoletan. Bestalde, iragarri du ikastetxe publikoetan 2024/2025 ikasturtetik aurrera 2 urteko gelak irekiko dituela, proba pilotu moduan. Gimeno kontseilariak Parlamentuko Hezkuntza Batzordean martxoan egindako agerraldian informatu zuen proba piloturako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxe publiko hauek aukeratu direla: La Balsa (Arroitz), Doña Mayor de Navarra eta Iturrama.

Hezkuntza komunitatearen zati handi baten eta eragile politiko eta sindikal askoren iritziz, ordea, 2 urteko gela horiek ez datoz bat hezkuntza-eskaintza integrala eskaintzearekin, horrek zikloa zatitzea eta ahultzea dakarrelako.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

– Ziklo horren kudeaketa homogeneizatzeko erabakiak har ditzala, orain dagoen dibertsifikazioa eta bateratasun falta gainditzeko asmoz, toki-entitateekin eta hezkuntza-eragileekin batera planifikatuta.

– Plaza berriak sortzerakoan 0-3 zikloaren ikuspegi integrala izan dezala, eta ez dezala zikloa zatika eskaintzeko biderik hartu.

– Ez dezala 2 urteko gela berri solterik sortu, sustatu edo erregularizatu, ez bada 0-3 eskaintza osoaren barruan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 24an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 219. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2024ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2023an berriro hautsi zen Espainiara iritsitako etorkin ilegalen errekorra. 2022aren aldean, % 82 igo da etorritakoen kopurua. Aurten, urtarrilaren 1etik apirilaren 15era, 17.529 etorkin ilegal heldu dira gurera. Alegia, iaz bitarte horretan heldu zirenak baino % 236,6 gehiago. Sánchez gobernura ailegatu zenez geroztik, 300.000 etorkin ilegal baino gehiago sartu dira Espainian. Horra gobernu honen balantzea immigrazioaren arloan. Etorkin horiek Espainian barrena banatzen dira, eta ez dakigu zehatz-mehatz horietako zenbat iristen diren Nafarroara.

Estatistikaren Institutu Nazionalaren 2023ko urriaren 1eko Errolda Jarraituari buruzko Estatistikaren behin-behineko aurrerapenaren arabera, Nafarroak 676.699 biztanle ditu guztira, eta horietatik 125.558 etorkinak dira; hau da, Nafarroako biztanleen % 18,55.

Kontrolik gabeko immigrazio-eredua ezartzea erabaki du Nafarroako Gobernuak; halatan, etorkin ilegalak etortzea sustatzen du, jaiotzak eta familientzako eta langileentzako laguntzak sustatzearen aldeko apustua egin beharrean. Kinka larrian gaude, arriskuan daude nafarren etorkizuna, ongizatea eta oparotasuna, eta areagotzen ari da segurtasun eza.

Nafarroak erosahalmena galdu du, eta pairatzen ari garen inflazioaren eta presio fiskalaren igoera neurrigabearen ondorioz langile-familia askok ezin dute euren etxebizitza tenperatura egokian mantendu, ezin dute haragia edo arraina bi egunetan behin jan, ezin dute euren etxebizitzaren hipoteka garaiz ordaindu eta ezin dira hila-bete amaierara heldu.

Nafarrak gero eta pobreagoak izatea ekiditeko politikak ezarri behar dira. Ezin da onartu etorkin ilegalei laguntzak ematea (nafarrei ukatzen zaizkien laguntzak), nafarrak hilabete amaierara heldu ez direnean.

Immigrazioak legala izan behar du, Nafarroaren beharretara egokituia, egokitzapen-gaitasun eta -borondatearekin.

Nafarroara modu ilegalean heldu diren pertsonen gaineko kontrolik ezaren ondorioa da, gure kaleetan ikusi eta pairatu behar izan dugun moduan, nabarmen areagotu dela gurean gertatzen diren delituen kopurua: lapurretak, ebasaketak, sexu-erasoak, emakumeen eta homosexualen aurkako indarkeria...

Azaldutako guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du:

1. Laguntza eta onura sozial oro ken diezaien Espainiako nahiz Europar Batasuneko legeak

urratuz gure nazioan sartu diren etorkin ilegalei, salbu eta euren jatorrizko herrialdera itzularazi arte behar duten giza laguntza urgentea.

2. Immigrazio ilegala eta pertsonen salerosketa edozein modutan sustatzen edo errazten duten elkarte, erakunde, fundazio nahiz gobernuz kanpoko erakundeentzako dirulaguntzak ken ditzan.

3. Hartu beharreko neurriak har ditzan bakarrik dauden adingabekoen zentroak ixteko, gatazkatsuenetatik hasita, gure kaleetan segurtasun eza sortzen baitute. Adingabe atzerritar guztiak berehala bidali behar dira bueltan gurasoen, familiartekoen edo ingurune gertuenekoaren ondora, jatorrizko herrira. Zentro horiek itxi bitartean, zentro horietako langileen segurtasuna, behar adineko espazioa eta inguruko bizilagunen segurtasuna bermatzeko jarri beharreko neurriak eta azpiegiturak jarriko ditugu.

4. Beharrezko lege-erreformak egin ditzan atzerritartasun-espeditzea edo asilo-eskaera izapidetzean legez kontrako ezein etorkinek lege-iruzurra egin ez dezan.

5. Administrazio publiko guztiei eska diezaien pertsona fisikoei zuzenduriko dirulaguntza ororen deialdietan esplizituki jaso dezaten legezko bizitokiaren baldintza, ezen ez errolda hutsarena, dirulaguntza horiek jaso ahal izateko.

6. Espainiarrek lehentasuna izan dezaten, oro har, gizarte-laguntza publikoak eta mendekotasun-prestazioak jasotzeko orduan.

7. Administrazio erregionalek aurka egin diezaioten lurralde nazionalean legez kanpo edo modu irregularrean sartu den etorkinik birkokatzeari, baldin eta ez badu ezein motatako nazioarteko babesik eskatu.

8. Behar diren bitarteko guztiak jar ditzan gure erregioan etorkin ilegalak birkokatzea xede duen aurrekontu-partidarik ez gaitzeko.

Iruñean, 2024ko apirilaren 24an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sortzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, 2024ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozio honen jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak egiten du.

Zioen azalpena

Azken urteotan, giza eskubideen eta gutxiengoaren babesaren arloan aurrerapen esanguratsuak egin badira ere, Nafarroako LGTBI+ komunitateak, beste eskualde askotakoaren gisara, diskriminazioa, indarkeria eta bazterkeria pairatzen jarraitzen du. Giza eskubideen arloko nazioko eta nazioarteko zenbait erakundeen txostenek nabarmentzen dute LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeriazko eta diskriminaziozko ekintzek kezkatzeko moduan egin dutela gora.

LGTBIfobiak eragindako indarkeriaren kausak azaltzea zaila da eta azterketa sakona eskatzen du, baina faktore nagusietako bat da sexu- eta genero-aniztasunak ikusgaitasun handiagoa duela gizartean. Zenbait legek, hala nola berdintasuneko ezkontzarena, sexuari buruzko erregistro-aipamena aldatzekoa edota trans pertsonen benetako berdintasun efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legeak, eskubideak aitortzeaz gain, inoiz ez bezala ahalbidetu zuten egiazko berdintasuna lortzeko helburua izatea eta eguneroko bizitzan lehen jendaurrean erakusten ez ziren jarrerak, genero-adierazpenak edo maitasun-keinuak normalizatzea. "Armairura itzultzeko" ideia bazterturik, beharrezkoa da ikusgaitasuna defendatzen jarraitzea kaleko gune guzti-guztietan eta gune publiko guzti-guztietan, LGTBIfobiak eragindako diskriminazio-jarrerak eta indarkeria erabat desagertu arte.

Nafarroan LGTBIfobiaren aurkako behatoki bat sortzea beharrezkoa da LGTBI+ komunitatearen aurkako gorroto- eta diskriminazio-gertakariak monitorizatu eta aztertzeko eta horiei erantzun egokia emateko. Erakunde horrek, zaintza-mekanismo bat izateaz gain, aniztasunarekiko errespetua sustatuko duten inklusio- eta hezkuntza-politikak bul-tzatzeko plataforma gisa ere balioko luke.

Horrekin lotuta, behatoki horrek gorroto delit-uak, diskriminazio-egoerak eta LGTBIfobiak eragindako gertakari oro monitorizatu, erregistratu eta salatu ahalko lituzke. Monitorizatzea eta erregistratzea ezinbestekoa da aurrean dugun errealitatea ezagutzeko; izan ere, historikoki LGTBI pertsonak eta halakotzat hartu izan direnak ahaztu egiten diren erasoak pairatu dituzte. Gainera, Europako Oinarrizko Eskubideen Agentziak urteik datu bera ematen du, hau da, hamar biktimatik bederatzik ez duela salaketarik aurkeztu. Hori dela eta, ezinbesteko garrantzia du alderdi hori lantzea eta beharrezkoak diren tresnak eta akonpainamendua eskaintzea pertsonen duintasuna erasotua izan den kasu horien guztien aurkako borrokan.

Nafarroan LGTBIfobiaren aurkako behatoki bat izatea oso lagungarria izanen litzateke gizarte justu eta berdinzaleago bat eraikitzeko. Erakunde horrek pertsonak indarkeria- eta diskriminazio-ekintzetatik babesteko berehalako beharrari erantzungo lioke eta, horretaz gain, inklusiorako eta aniztasunaren errespeturako kultur aldaketa sustatuko luke eta horren aldeko hezkuntza ahalbidetuko luke.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du bi urteko epean LGTBIfobiaren aurkako Foru Behatokia sor dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premia-tzen baita Hauteskunde-araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkar-teen eta alderdi txikien egiazko beharrizanen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-araubide proportzional bat ezarriko baita

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premia-tzen baita Hauteskunde-araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa alda dezan, halako moduan non tokiko hautesle-elkar-teen eta alderdi txikien egiazko beharrizanen arabera mugatuko baita gastua eta zehapen-araubide proportzional bat ezarriko baita.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2024ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkuran (osteguna) eztabaidatzeko. Lurralde Kohesiorako Batzordeak eginen du horren jarraipena.

Zioen azalpena

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, aho batez, Konstituzioaren aurkakotzat jo ditu Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa aurreikusitako zehapenentarako 5.000, 25.000 eta 50.000 euroko gutxienezko mugak, hauteskunde-gastuen mugak gainditzen dituztenentzat. Parlamentu honek uste du egoera hura kaltegarria zela udal hautesle-elkar-teenentzat eta alderdi txikiarentzat.

Duela urtebete pasatxo, Legebiltzar honek mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Diputatuen

Kongresuari eskatzen zitzaion egoera horri konponbidea eman eta dei zezala Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko azpibatzerdea, dagozkion lege-aldaketak egin ahal izateko.

Mozio horren aurretik, 2021eko irailaren 14an, Diputatuen Kongresuak baztertu egin zuen aintzat hartzea Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzeko Lege-proposamena, zeina Nafarroako Parlamentuan onetsi eta Kongresura igorri baitzen.

Orain, Konstituzio Auzitegiak aitortu egin du hautesle-elkar-teen eta alderdi txikiek pairatzen duten konparaziozko bidegabekeria hori, muga horiek Konstituzioaren kontraketat deklaratu baititu.

Beraz, oraindik ere beharrezkoa da Legebiltzar honek behin eta berriz egin duen planteamendua aurrera ateratzea. Izan ere, bere ekimenen bidez, herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du gure udalerrietako gai publikoetan, talde horiek hauteskundeetan bidezko baldintzetan parte hartzeko aukera bermatuta.

Legearen aldaketa hori Kontuen Auzitegiak eskatu duen ildo beretik joanen litzateke; hain zuzen, toki-hauteskundeetan inguruan egin dituen azken fiskalizazio-txostenetan adierazi baitu "aplikatzekoa den gastuaren gehieneko muga nabarmen eskasa dela hauteskunde-kanpaina bat aurrera eraman ahal izateko". Hori horrela, organismo honek behin baino gehiagotan eskatu die Gorte Nagusiei Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa aldatzea.

Proposamen hori ezesteak talde eta alderdi txiki asko egoera benetan kezkarri batera daramatza, aurreko hauteskunde-prozesuetako zehapen-espeditenteak oraindik ere abian baitira, eta, egia esan, talde horietako askoren lana zaildu zuen azken udal-hauteskundeetan, eta, horren ondorioz, horietako batzuk ez ziren aurkeztu.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, funtsezkoa da arazo hori konpontzen saiatzen jarraitzea, herri askotako bizilagunei parte-hartze demokratikora-ko eskubide osoa itzultzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du ekin diezaion Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Foru Legebiltzar honek behin eta berriz egin dituen eskaerei

erantzuteko lanari, hautesle-taldean eta tokiko alderdi txikien benetako beharretara egokitutako gastu-mugak eta zehapen-araubide proportzionala jasoz.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Eleduna: Pablo Azcona Molinet

11-24/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoriaren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkuran (osteguna) eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren jarraipena Memoria eta Bizikidetz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak eginen du.

Zioen azalpena

Duela aste bat, Nafarroak aurrerapauso garrantzitsu bat eman zuen ofizialki, eta lehen aldiz, aitortu baitzituen poliziaren eta Estatuaren indarkeriaren 12 biktima; modu horretan, aurrera egiten da eskuin muturrak edo funtzionario publi-

koek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduan eta erreparazioan.

Urrats historikoa da Nafarroako gizartearen zat, eta Parlamentu honek onetsitako lege bat betetzera dator; baina, horrez gain, ikuspuntu etiko batetik, bide ematen du mota horretako indarkeria-ekintzak pairatu dituztenen erreparazioaz bezainbatean Nazioarteko Zuzenbidean jasotakoa betetzeko.

Horrela, Nafarroa berriz ere aitzindaria izan da, eta hala da 2015etik, urte hartan abiatu baitziren lehenbiziko memoria-politikak. Jarraipena eman zaio gizarte zibilak hainbat esparrutan jada hasita zuen lanari, eta, nire ustez, ezin zaio etorkizunari begiratu ahanzturatik abiatuta.

Baina, zoritxarrez, aldi berean, memoriari dagokionez inboluzio antidemokratiko bat bizi dugu, dagoeneko zenbait autonomia-erkidegok, eskuin muturrak aginduta, deuseztatu edo murriztu egin baitituzte Memoria Historikoari buruzko haien legeak.

Horrela, gelditu egiten da azken urteotan lortutako aitzinamendua, zeina lortu baita herritarren lanari eta administrazio publikoek oraindik ere oso beharrezkoak diren politika batzuetan duten inplikazioari esker.

Erabaki horien aurrean, memoria historikoarekiko konpromisoa areagotu behar da, indarkeria guztien deslegitimazioan anbiziotsuak izaten jarraituko duten erakundeekin, eta bermatuta biktima guztiek egia, justizia eta erreparazioarako duten eskubidea.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1- Nafarroako Parlamentuak dio beharrezkoa dela 2015etik aitzina baliatzen ari diren memoria-ren alorreko politika publikoak jorratzen jarraitzea.

2- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gober-nua premiatzen du indartu dezan biktima guztien aitortza, erreparazio eta memoriarako politiken sustapena.

3- Nafarroako Parlamentuak agertzen du erre-fusatu egiten duela gai horretan atzerapausoak ematea, kasurako, Memoria Demokratikoaren Legeak indargabetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatuko duena 48 ordukoa izatea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehienezko itxaronaldia

MOZIOA ERRETIRATZEA

2024ko apirilaren 29an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatuko duena 48 ordukoa iza-

tea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehieneko itxaronaldia. Mozioa 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta erre-
presaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako aginta-
rien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak**

MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2024ko apirilaren 29an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-

basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak. Mozioa 2024ko apirilaren 16ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

